

Karitatea eta iraultza

Sufrimendua heriotza bezala da, denoi tokatzen zaigu. Gainera, arrazoi objektiboak arrazoi objektibo, ezinezkoa da neurtea bakoitzak zenbat sufritzen duen. Nor ausartzen da batek besteak baino gehiago sufritzen duela esatera? Norbaitek kristorenak eta bi sufri dezake inguratzen duten bizi-baldintzek gehiegikerian ari dela adierazten badute ere, baina hala ere, deitu gaixotasuna, sufritu egiten du.

Euskal Herriko mapa, horregatik, ez dago batere argi. Izan ere, batzuek ETaren biktimak eta haien senitartekoak izanen dira maparen erdigune; beste batzuek presoak izanen dira sufrimenduaren ardatz —irudika ezina egiten zait gartzelan urteak pasatzea zer izan behar duen—, beste batzuek euskal gatazka baino zer garrantzizkoak badirela erabakirik, Bilboko pobreak; beste batzuk, gutxira, lanik ezean, kanporatzen hasiko garen etorkinak. Izan ere, mapa batek ez dauka erdigunerik, dena erdigune izan daitekeelako. Bai, mapak ez dira inoiz neutroak.

Mundu honetan, Katixa zuk ongi argitu bezala, Indonesiako sufritzaileak aldamen bihurtu zaizkigunez ez da posible bakarrik Euskal Herriaren sufrimenduaren mapaz arduratzea. Niretako hori da eskuinekoena —hartu zalantzaz, mesedez. Hala ere, ziniko paratuz Jon Juaristiren —poeta on pertsonaia zalantzazko— bertso lerro batzuk harira datozenez, hona ekarriko ditut: “*Sigo siendo de izquierdas aunque se note poco*”.

Sufrimenduak denok ukitzen gaituzen edozein sufrimenduz arduratu daiteke edonor —ez guztiez aurreko zutabearen proposatu bezala— eta edozein modutan, baita literatura deitzen den horren bidez ere. (Ez zuen bizitza islatu nahi? Ez dira gartzelako bizi-modua argitzeko zirrikitu bat Sarrionaindiaren



JUANJO OLSAGARRE

Agirre

Rodriguez

Gartzelako poemak?; ez da Zubizarretaren *Pikolo* sufrimenduaren adibide?).

Hala ere, sufrimenduak eta hori konpondu nahi duen iraultzak hori dauka putadatik, praktika, alegia, pentsatutakoa eraginkorra izan dadin, gauzatu egin behar dela. Zentzu horretan askoz eraginkorragoa, eta erradikalagoa, iruditzen zait, Eider,

Medicus Mundiren aukera, berez duen ekintza kolonizatzaile izaera gorabehera, egiten duen norbait —baita moja bat ere jainkoaren koartadarik ez balu— iraultza nola egin behar den egunkarietan zutabe iraultzaileak idazten iraultzaren zain dagoen idazle hori baino.

Nagusikeriaz, gutxi jota, kutsaturiko egitateaz gainera, ezkerren erretorikan, dialektikaren legea azkartuko lukeen kontradikzioen narraskeria koipetu eta leuntzeko balio omen du karitateak, eta, hala ere, euskal idazle gehienak, zutabe iraultzaile eta borrokalari horiek idazten dituen hori barne, idazle izanik egiten dituzten ekintza guztiak baino erradikalagoa da. Arindu, sufrimenduak arintzen delako nahiz eta kontradikzioetan erori. Akaso ihes egin diezaioke euskal idazle abertzale ezkerreari guai denarekiko elkartasuna adierazten duen horrek kontradikzioari? Bada ez, beti dagoelako bere burges txikitasunean atzipeturik. (Hau, mesedez, ez dezala inork bizitza heroikoarentzako bulzada moduan har, alderantziz baizik).

ETaren kontrako zutabeak idazteagatik Espainiako Gobernu faxistak eta PNV eta Aralar traidoreek kontu korronteak gizendurik ditugun idazle burges txikiok buruz, zer esan? Aspaldi da ez dugula bakarrik idazten, areago, polizia ondoan beharrean, barnean daukagu. Eta hala ere “*seguimos siendo vascos, aunque se note poco*”. ■



ETaren kontrako zutabeak idazteagatik Espainiako Gobernu faxistak eta PNV eta Aralar traidoreek kontu korronteak gizendurik ditugun idazle burges txikiok buruz, zer esan? Aspaldi da ez dugula bakarrik idazten, areago, polizia ondoan beharrean, barnean daukagu

